Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy Film Festival

ESPAINIAKO FILM LABURRAK INSKRIBATZEKO

Film laburren nazioarteko lehiaketan 30 minutu edo gutxiago irauten duen edozein film labur inskribatu daiteke. Espainian produzitutakoa bada, Espainiako Film Labur Onenaren Sarira ere aurkeztu daiteke. Horretarako, **NAHITAEZKOA DA FILM LABURRA WEBGUNE HONETAN ERREGISTRATZEA** WWW.SHORTFILMDEPOT.COM**, ETA BERTAN *DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEAN* IZEN EMATEA**.

Mundu osoko zinemaldi ugaritan film laburrak inskribatzeko aukera ematen duen baliabidea da Short Film Depot, erraza eta azkarra izateaz gainera, filma inskribatu nahi den bakoitzean ez baita formulario bat bete behar.

Short Film Depot-en inskribatuta ez dagoen film labur bat ere ez da hautaketarako kontuan hartuko. Erregistratu ondoren, webgune horretan agertzen diren jarraibideak bete behar dira filma bidali eta ikusi ahal izateko.

Inskripzioa egiteko eta kopia bidaltzeko azkeneko eguna: **2011eko ABUZTUAREN 15a.**

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy Film Festival

ESPAINIAKO FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETARAKO OINARRIAK
Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea
Urriaren 29tik azaroaren 4ra
2011

OINARRIAK

Aukeraketa egiteko batzorde arduradunak aukeratuko ditu lehiaketan parte hartuko duten film laburrak. Lehiaketara aurkezten diren film laburrek jarraian zehazten diren baldintzak errespetatu beharko dituzte:

- Espainiako ekoizle batek ekoiztuta izatea
- 2010eko urtarrilaren 1az geroztik egina izatea
- 30 minutu baino luzeagoa ez izatea
- Fantasiazko edo beldurrezko gai bat lantzea
- Bai zinema bai bideo formatu onartuko dira (35mm, Betacam, HD, DCP).

Film labur bat lehiaketara aurkezteko, 2011ko abuztuaren 15a baino lehen, www.shortfilmdepot.com webgunean izena eman behar da, eta, ondoren, filmaren kopia eta izena emateko formularioa behar bezala beteta aurkeztu behar dira. Batzorde arduradunak www.shorfilmdepot.com webgunean inskribatutako Espainian ekoiztutako film laburren artean, aukeratuko ditu kategoria horretan parte hartuko duten lanak. Batzorde arduradunak kategoria horretan aukeratutako film laburren artean baten bat aukeratu dezake Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko.

SARIAK

- Film labur partehartzaileek Espainiako Film Labur Onenaren Saria irabazteko aukera izango dute

Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Donostia Kultura
Teatro Victoria Eugenia
Reina Regente, 8 - 4º
20003 Donostia-San Sebastián
34 943 48 11 57
cinema_cinema@donostia.org
www.sansebastianhorrorfestival.com